KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Tortura xuria

Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Bakartasunaz bi hitz
FILIPE BIDART
Txalaparta, 2004

Kartzela, ez dakit inoiz utzi dion egoteari, baina hain modako dagoena, kasik urte oso eta askotarako tendentzia baten gisa. Euskarazko literaturari kasu eginez gero, hasieretatik dago, Etxepare bera Biarnoko hartara sartu zutenetik. Sarrionandiaren kasu, ez noski azken, bai segur aski paradigmatikoraino. Eta hor badago tesi edo dena delako bat, euskal literatura eta kartzela lotzen dituena. Kartzelaren makurrena, ordea, bakartasuna.

Pasa direnek diote, bakartasuna, isolamendua, nahi gabe ere, izerdi hotza balitz bezala, azalean itsatsi zaigun terminologia. Bakartasun ez bilatua, ez desiratua, fabrikatik bakarzale garenok hainbeste maite duguna. Baizik eta derrigorra, autoritatearen baitakoa. Filipe Bidartek ezagutu zuen, IK talde armatuko kideak, Frantziako kartzeletan.

Eta liburutxo batean eman zuen berri, laburtu zituen bakartasunean pasa behar izan zituen bi urtetik gorakoak ("non legez ez den hiru hilabete baino gehiagorentzat atxikitzen ahal"). Bi urte bakartasunean, irakurrita, ez du asko ematen, akaso, hogeita lau orenetatik hogeita hiru zeldan, goiz eta arratsaldez promenada bana –ordu erdiko–, giza tratu bakar funtzionarioen salutazio ez bereziki espansiboak. Tortura xuria, alegia, bestelakoen aldean oharkabea baita. Hitzek ez dute transmititzen, ezin, barruan bakarrik dagoenak zer sentitzen duen. Baina, sinistu, liburua irakurri ahala zuk ere senti dezakezu, atea ixtean, klanka, barruan bakarrik geratzen zarela, ezin aterako zarenaren itolarria, lehen ordu-egunen noraeza. Gero pixkanaka egingo zara, harrabotsetara, denboraren izari berrira, antsiak erabat sekula abandonatuko ez zaituen arren. Ez dakizu zer lasaitua hartzen den, denboragarrenera, irrati ttipi bat erosten ahal duelarik!

Filipe Bidart (Baigorri, 1953).
DANI BLANCO

Bakartasunaren testigantza gordina, beraz, inoiz zuloan sartuko ez gaituzten esperantza dugunok (gauzak nola dauden ikusita, auskalo) bakartasuna, ez bilatua, ez desiratua, baizik eta derrigorra, zertan den ezagutzeko balioko diguna, inoiz zuloan sartzen bagaituzte (epaileak guarda!), gidaliburu modura ere erabil genezakeena, superbibentzia kit bat bailitzan, baina, besteren gainetik, denik eta egoerarik kontrakoenean ere, erresistentziarako, duintasunerako, umorerako tartea badagoela erakusten diguna.

"Gizakia ez da bakarrik bizitzeko sortua". Fabrikatik bakarzale garenok ere fedea aldatuta bukatuko dugu irakurketa. ■